

HEGO EUSKAL HERRIKO LAN-EZBEHARREN EGOERAREN TXOSTENA 2012. URTEAN

1.- DATU OFIZIALEN ANALISIA

2012an, Hego Euskal Herriko enpresen egoera, lan-ezbeharrei dagokienez, ez da hobetu eta oso kezagarria dela esan dezakegu. Izan ere, analisi hau landu dugu murrizketa eta erreforma ikaragarriak izaten ari diren garai batean eta, neurri horiek oso kaltegarriak izaten ari dira langileriaren bizitzarentzat eta osasunarentzat, txostenean ikusiko dugun bezala.

Egia bada ere ezbehar kopuruak behera egin duela, hori batez ere zor zaio egungo krisiaren ondorioz jarduera ekonomikoan gainbehera nabarmena gertatu izanari; ez, ordea, arlo honetan garatzen ari diren politikek eraginda. Txosten ofizial guztiek diote lan-ezbeharrek behera egin dutela, baina ez da neurri berean esaten enpleguak izan duen galera izugarria.

Izan ere, 2008az geroztik, Hego Euskal Herrian 143.900 enplegu galdu dira. 2012an, zehazki, 76.000 enplegu galdu dira. (Iturria: INE).

Datu ofizialak aztertzen hasi aurretik, bi kontu aipatuko ditugu:

- 2012an, lehen aldiz jaso dira etxeko lanetan ari diren langileek izandako lan-istripuak, etxeko langileen enplegua Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartu baita.

- Nafarroari dagokionez, krisi ekonomikoa aitzakia hartuta, batu egin dira Nafarroako Lan Osasunaren Institutua eta Nafarroako Osasun Publikoaren Institutua, eta horren ondorioz, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua eratu da.

EAEri dagokionez, eta Osalanek emandako datu ofizialen arabera (*Lan Ezbeharren Estatistika Laburpenak*), 2012an **75.812** lan-istripu gertatu ziren, haietatik 46.884 baja hartu barik, eta 28.928 baja hartuta. Datu horri berriro gaixotu diren 1.508 kasu gehitu beharko litzaizkioke. 2011n, Osalanek **81.149** lan-istripu zenbatu zituen, haietatik 47.137 baja barik, eta 34.012 baja hartuta.

Heriotza-istripuen kasuan, datu ofizialek diote lanaldian **40** langile hil zirela. 2011n, ofizialki, **48** hildako gertatu ziren; kopurua, beraz, % 16,6 jaitsi da. Datu horietan, lanaldian eta *in-itínere* gertaturiko istripuak bilduta daude.

2012

EAE L.I.	BAJA GABE	ARINAK	LARRIAK	HERIOZKOAK	GUZTIRA
BIZKAIA	21.067	14.625	85	19	35.796
GIPUZKOA	15.064	8.817	60	15	23.956
ARABA	10.753	5.259	42	6	16.060
EAE	46.884	28.701	187	40	75.812

Iturria: Lan Ezbeharren Estatistika Laburpenak (LEEL)

2011

EAE L.I.	BAJA GABE	ARINAK	LARRIAK	HERIOZKOAK	GUZTIRA
BIZKAIA	21.037	17.253	91	22	38.403
GIPUZKOA	15.134	10.245	84	19	25.482
ARABA	10.966	6.243	48	7	17.264
EAE	47.137	33.741	223	48	81.149

Iturria: LEEL

2012an, beraz, Osalanek 40 heriotza-istripu zenbatu ditu, nahiz eta 47 hildako erregistratuta dituen. Bestela esanda, estatistika ofizialetatik zazpi heriotza-istripu kendu dituzte. Osalanen jasotzen diren heriotza-istripuen parteak “baliozkotu” egin behar dira, datu ofizial gisa erregistratu aurretik. Baliozkotze-prozesuaren ondotik, aurrez jasotako hainbat istripu alde batera uzten dira; esate baterako, langile autonomoek eta kooperatibistek jasandako heriotza-istripuak, EAEn heriotza-istripua izan duten kanpotarrenak, edota Mutualitateek lan-istriputzat jo ez dituzten ezbeharrak.

Nafarroan, 2012ko estatistika ofizialaren arabera, baja eragin duten lan-istripuen kopurua **6.822** izan da; horietatik, 6.755 arinak izan dira, 60 larriak, eta 7k heriotza eragin dute.

NAFARROA L.I.	ARINAK	LARRIAK	HERIOZKOAK	GUZTIRA
2012	6.755	60	7	6.822
2011	8.622	78	10	8.710

Iturria: www.empleo.gob.es

Hona ekarritako datuetan ageri den bezala, Nafarroan 2012an % 21,6 lan-istripu gutxiago izan da 2011n baino.

Hego Euskal Herriko intzidentzia-indizeari dagokionez (hau da, baja eragiten duten lan-istripuen kopurua 1.000 langile okupatu bakoitzeko), eraikuntzan dago intzidentziarik handiena, eta txikiena, berriz, zerbitzuen sektorean.

Lan-ezbeharren gaineko informazioari dagokionez, salatu behar dugu oso gardentasun txikia dagoela heriotza eragiten duten lan-istripuen tramitazioan, eta oso zaila dela behar den informazioa lortzea. Are gehiago, desberdintasun nabarmenak daude erakunde ofizialek jasotako datuen artean.

2.- ELAren DATUEN ANALISIA

2012an, **ELAk 66** hildako zenbatu ditu, lan-istripuek eraginda, Hego Euskal Herrian (58 EAEn eta 8 Nafarroan); iturri ofizialek, aldiz, 47 hildako. Horrek esan nahi du azpierreistroko aldea % 28,78 dela. Heriotza-istripuen datu hori oso erraza da egiaztatzekoa, eta hain desberdina bada, zentzuzkoa da pentsatzea gainerako istripuen (larriak, arinak, eta baja gabekoak) azpierreistroko portzentajea are handiagoa izatea.

HERIOZKO L. I.	2012	2011
BIZKAIA	29	28
GIPUZKOA	17	30
ARABA	12	9
NAFARROA	8	11
HEH GUZTIRA	66	78

Lan-istripuek eragindako heriotzak gutxiago izan badira ere, kontuan hartzen badugu zer-nolako krisi egoera pairatzen ari garen eta, horren eraginez, lan-jarduerak zer jaitsiera izugarria izan duen, heriotza-istripuen kopuruak oso handia izaten jarraitzen du. ELAk erregistratutako lan istripu mortalak %15,38^a jaitsi dira aurreko urtearekin konparatua. Arabak bakarrik izan du igoera nabarmena, aurreko urtearen aldean, heriotza-istripuak 9tik 12ra igo baitira. Bizkaian heriotza bat gehiago gertatu da aurreko urtean baino; gainerako herrialdeetan, aldiz, heriotza-istripuek behera jo dute.

2012ko heriotza-istripuen kasuak xehetasunez aztertuz gero, honako hau nabarmenduko dugu:

-Istripuen % 36 ez da traumatikoa izan.

-Istripuen % 30 "in-itinere" gertatu da.

-Istripuen % 10 eraikuntzan gertatu da; eta, % 13, berriz, metalgintzan.

-Istripuen % 25,7 zerbitzuen sektorean gertatu da; hau da, eraikuntzan eta metalgintzan gertatu direnak baino gehiago izan dira. Zerbitzuen sektorean gertaturiko istripuetatik, % 41 ez dira traumatikoak izan, eta % 35 in-itinere gertatu dira.

-66 hildakoen artetik, % 7,57 azpikontrataturiko enpresetan gertatu da.

-Heriotza-istripuen % 7,5 langile autonomoak izan ziren.

-Heriotza-istripuen % 9 garraio-sektorean gertatu da.

Metalgintzari ez dagokion industria-sektorean (hau da, enpresa kimikoetan eta papergintzakoetan) gertatu dira heriozko lan-istripurik gehienak 2012an, bai eta garraio-sektorean ere; hots, eraikuntzan eta metalgintzan gertatu direnen halako bi baino gehiago. Deigarria da, era berean, zerbitzuen sektorean zenbat heriotza-istripu gertatu den. Egiaztatu da, beraz, joera-aldaketa gertatu dela betidanik lan-istripu gehien izan diren sektoreetan, jarduera gainbehera etorri izanaren ondorioz.

Deigarria da traumatikoak ez diren zenbat eta zenbat istripu gertatzen den, 2012ko heriotza guztien % 36 baitira. Datu hori 2011n jadanik hasitako joerari jarraitzen zaio, eta hori ikusita, pentsatzekoa da zenbaki horien atzetik tankera psikosozialeko arriskuak daudela. Izan ere, era horretako arriskuak dagoeneko arazo larria izaten ari dira Hego Euskal Herriko langileen osasunarentzat.

Arestian adierazi dugun bezala, begi-bistakoa da lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen zati handi bat ez dela inoiz jasotzen estatistika ofizialetan; beraz, ez dute inola ere erakusten HEHn benetan dagoen egoera. Bai Eusko Jurlaritzak bai Nafarroako Gobernuak modu interesatuan eta lerratuan baloratzen dituzte datuak, emandako informazioa partziala eta kalitatez eskasa baita eta, horrez gain, informazioaren irakurketa modu jakin batean egiten da. Portaera horren bidez, lan-istripuen egoera hobera doalako itxura egin nahi da, urtez urte murrizten ari delako itxura; baina hori ez da egia.

ELAk erregistraturiko heriotza-istripuetako batzuk ez ditu Osalanek holakotzat hartu, eta Osalanek holakotzat hartu ez dituen istripu gehien-gehienek ez dute jatorri traumatikoa izan edo *in-itinere* gertatu dira: abuztuan hilik gertatu ziren kamioilarien bi istripuak, esate baterako.

3.- LANBIDE-GAIXOTASUNAK

Lanbide-gaixotasunen kasuan, Osalanek lanbide-gaixotasunen **2.799** agiri ditu erregistraturik bere artxiboetan, Gizarte Segurantzari CEPROSS sistemaren bidez jakinarazi dizkionak. 2011N, **2.960** agiri erregistratu ziren.

EAE	BAJArekin	BAJARik gabe	GUZTIRA
2012	945	1.854	2.799
2011	967	1.993	2.960

Iturria: CEPROSS

Nafarroan, 2012an, lanbide-gaixotasunen **1.322** komunikazio-agiri erregistratu dira CEPROSS sistemaren bidez; haietatik, 532 baja hartuta, eta 790 bazarik gabe. 2011n, 1.707 erregistratu ziren.

NAFARROA	BAJArekin	BAJARik gabe	GUZTIRA
2012	532	790	1322
2011	738	969	1707

Iturria: CEPROSS

2012an nabarmen jaitsi dira lanbide-gaixotasunen kasu erregistratuak, aurreko urtearekin alderatuta; datu hori deigarri samarra da, lan-baldintzak batere hobetu ez direla kontuan hartuta. Aspaldian hasi ginen salatzen lanbide-gaixotasunen kasuan egiazki gertatzen direnak baino askoz ere gutxiago aitortzen direla: hori etengabe gertatu da, baina aurreko oso argi islatua dago estatistiketan. Izan ere, gauza jakina da langileek ez dituztela lanbide-gaixotasunekin lotuta dauden patologiaak agerrarazten, beldur baitira ez ote duten lanpostua galduko, gaixo daudela onartuz gero.

Ikusi besterik ez dago zenbat lagun hil diren 2012an amiantoari lotutako gaixotasunek eraginda: 29 hildako izan dira Hego Euskal Herrian eta ez daude inon ere erregistraturik. Era berean, 2008tik hona, 103 lagun hil dira, amiantoari lotutako gaixotasun horiek eraginda.

4.- BALORAZIOAK ETA ONDORIOAK

1.- Datuen gorabeheren gaintik, lan-ezbeharrek **egiturazko osagaiak** ere badituzte, eta ELAtik behin eta berriz salatu ditugu. Hona hemen: goraka doan prekarietatea; azpikontratazio-indize altu-altuak; lan-erritmo itogarriak; eta prestakuntzarik eza. Horiexek dira sufritzen dugun gizarte-gaitz horren arrazoi nagusiak.

2.- Egiturazko arrazoiez gain, Administrazioak aplikatzen ari diren **murritzketak eta doikuntzak** ere aipatu behar dira. Hego Euskal Herrian inposatzen ari diren murrizketen ondorioz, lan-osasuna ia hutsean geratu da. Izan ere, gastu hori ez da ezta BPGaren % 0,020ra iristen.

2013an, gainera, Osalani % 14,87ko murrizketa bat eragingo diote. Nafarroan antzera daude, baina ez dugu datu zehatza eskura, Nafarroako Lan Osasunaren Institutua Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutu berrian txertaturik geratu delako.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutua Nafarroako Osasun Publikoaren Institutuarekin uztartu da. Aldaketa hori dela eta, gure kezka agertu nahi dugu, Lan Osasunaren Institutuak jarduketa gutxiago egingo dituelako, eta jarduketa horien kalitateak behera egingo duelako, organismo horretan gertatu den langile-murrizketaren ondorioz. Agerikoa da Lan Osasunaren Institutuak pisua galduko duela Osasun Publikoaren Institutuaren aldean.

3.- **EAEko eta Nafarroako administrazioek ez dute hartu ez politikarik, ezta neurririk ere**, arazo horren arrazoiei behar bezala aurre egiteko. Baliabiderik ezak agerian uzten du ez dagoela borondate politikorik lan-osasuna babesteko, defizit hori propagandaren bidez betetzen saiatzen badira ere.

Izan ere, lan-ezbeharrei aurre egin nahi izateko, patronalaren interesen kaltetan doazen neurriak hartu behar dira. Dena dela, gobernuak eta patronalak ados daude ezarri nahi duten lan-harremanen ereduarekin. Ontzat jotzen dira prekarietatea, kontratazioaren arloko lege-iruzurra eta neurrigabeko azpikontratazioa. Horiak horrela, Osalanek. Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak eta Lan Ikuskaritzak ez dituzte beren eginkizunak betetzen lan-arriskuen prebentzio arloan; hau da, enpresa arau-hausleei jarraipena egitea, kontrolpean edukitzea eta zehapena ezartzea.

4.- Lan-merkatuan jarduerak behera egin badu ere, **lan-ezbeharren datuek onartezinak izaten jarraitzen dute**. Egia da lan-istripu gutxiago gertatu dela, baina hori zor zaio jarduera ekonomikoa gainbehera etorri izanari; ez, ordea, gobernuak lan segurtasunean eta osasunean egiten ari diren politikiei.

5.- Enplegua suntsitzen ari den eta jarduera ekonomikoa gainbehera etorri den ataka ekonomiko honetan, **enpresek egoerari erantzun hau eman diote: batetik, prebentziorako inbertsioak murriztu dituzte**, eta bestetik, lan osasuna eta segurtasuna galtzea eta kaltetzea eragiten dituzten egoerak sustatu dituzte. Gero eta ugariagoak dira enpresen jarduera irregularrak, ezbeharrak eta lanbide-gaixotasunak ez erregistratzeko; esate baterako, istripua izan duen langilea etxera bidaltzea, mutualitatera eraman gabe, edota langilea jartzea lesioarekin edo gaixotasunarekin bateragarria den bestelako jarduera batean. Edozein gauza, jakina, enpresetako lan-ezbeharren benetako datuak ezkutatzeko, hobariak eskuratzeko aukera izate aldera; hau da, murrizketak gizarte segurantzara lanbide-gertakariengatik ordaintzen diren kotizazioetan; BONUS famatua, alegia.

Praktika horiei langileen beldurra erantsi behar zaie ez ote duten beren lanpostua galduko, aldi baterako ezintasun-egoeran egoteagatik. Gogoratu behar baita, lan-erreforma indarrean sartu zenez geroztik, gaixotasunek edo ezbeharrek eragindako absentismoa langilea era bidezkoan kaleratzeko arrazoia izan daitekeela, eta enpresak horretaz baliatzen dira.

6.- Prekarizazioa gero eta handiagoa da lan-harremanetan, lanaldiak handitu dira, enplegatzaileak langilearen lan-baldintzak aldebakartasunez alda ditzake, kaleratze masiboak... Horrek guztiak zuzeneko eragina dauka langileen **osasun psikosozialean**. Oso baliabide eta bitarteko gutxi eskaintzen zaizkie, jakinik ere langileen artean arazo globala eta lehen mailakoa izatera iristen ari dela. Horregatik, gero eta istripu eta gaixotasun gehiago atzematen ari dira eragile psikosozialei lotuta; eta haien artean mobing edo lan-jazarpenaren kasuak nabarmendu behar dira.

7.- **Lanbide-gaixotasunei** dagokienez, axolagabekeria erabatekoa dela salatu behar dugu. Datu ofizialek ez dute errealitatea islatzen. Argi dago lanbide-gaixotasunak ezkutuan mantentzen direla eta benetan direnak baino askoz ere gutxiago jakinarazten dituztela. Europa eta mundu mailan lanbide-gaixotasunen hazkundera eta eragina hain gai kezkarria izanik (lan-istripuena bera baino kezkarriagoa), hemengo administrazioentzat gai horrek hutsaren hurrengo izaten jarraitzen du.

Osasun Sailak susmo-agiriak jakinarazteko duen eginbeharra ez du behar bezala betetzen. Halaber, horretarako eskumenak izan arren, administrazioek ez dute esku hartzen prebentzio-zerbitzuen aurka, honelako kasuak gertatzen direnean: prebentzio-zerbitzuek, kontingentzia hori mutualitateei ez leporatzearen, lanbide-gaixotasunen susmoak jakinarazi ez eta gehienetan osasun-zerbitzu publikora desbideratzen dituzte. Ez da esku hartzen ez enpresen aurka, ez prebentzio-zerbitzuen aurka. Horrela, langile kaltetuek auzitegietara jotzea beste biderik ez dute, lanbide-gaixotasuna aitortzeko; hori, ordea, oso esperientzia gogorra da, zer baldintzatan dauden kontuan hartuz.

8.- **Negoiazio kolektiboaren erreformaren** ondorioetako bat izango da sektoreetako hitzarmen kolektiboetan jasotako garantia minimoek indarra galduko dutela uztailaren 7tik aurrera. Horren ondorioz, hitzarmen horietako lan-osasunari dagozkion klausulak (halakorik badago), hau da, lan-arriskuak prebenitzeko 31/95 Legean bildutakoa hobetu egin duten klausulak ere eroriko dira, enpresa-hitzarmenetara eroaten ez badira (adibidez, osasuna zaintzea aurreikusten duten hitzarmen askotako artikulak).

9- Gobernua Errege Dekretu bat prestatzen ari da aldi baterako ezintasunen kudeaketari buruz. Proiektua joan den urtarrilaren 21ean onetsi zen eta bidea ireki dio datozen hilabeteotan iritsiko den Mutualitatei buruzko Legeari. Osasun-sistema publikoa pribatizatzeko pauso bat da, beste bat, mutualitateen eskuetan are eskumen gehiago utziko dituelako.

Mutualitatei azken pauso bat lortzea geratzen zaie; hots, mutualitateetako medikuek efektu medikoetarako alta eman ahal izatea; arlo horretan horixe da patronalaren egiazko helburua. Beste arlo batzuetan, gobernuek dena eman badiete, azken hori gertatzea denbora kontua da.

5.- ELAren PROPOSAMENAK

1.- ELAk arlo honi buruzko politika publikoak zeharo aldatzeko eskatzen die gobernu guztiei. Hartara, aurrekontu-zuzkidura handitu behar da, oraingo beharrianak betetzeko adinakoa izan arte.

2.- Enplegu duina eta eskubidez jantzia sortzea lehentasunezkoa izan behar da gobernuentzat. Ildo horretatik gobernuen zeregina da enplegua sortzeko politikak bultzatzea eta lan-eskubideak zabaltzea, prekarietatea ezabatuz, neurriz gaineko azpikontratazioa mugatuz eta kontratazioko lege-iruzurra zigortuz.

3.- Erakunde eskudunei eskatzen diegu zehapen-jarduketa eredugarriak egiteko hala enpresen aurka, nola zerbitzu mediko eta prebentzio-zerbitzuen aurka. Jarduketa horien xedea prebentzio-arloko praktika txarrak antzematea da, bai eta aipaturiko praktikak abiapuntutik beretik desagerraraztea ere, langileen osasuna lantokietan hobeto zaintzearen.

4.- ELAk ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa bultzatuko ditu, lan-osasuna hobetzeko tresna egokiak direlakoan. Jendea arazo horretaz jabeazten, antolatzen eta sindikatuon mobilizazioen bidez bakarrik egingo dugu aurrera gure eskakizunetan. Zehazki, negoziazio kolektiboa sendotuko dugu:

- Eraginik gabe gera daitezken hitzarmen sektorialetan bildutako edukiak enpresako hitzarmenetan gotortuz edo hobetuz.

- Gaixotasun arrunten kudeaketa mutualitateen eskuetan gelditzea eragotziz.